

EKOHOSTEL



GARAZI PAGOAGA

JON AIZPITARTE

LEIRE GOJENOLA

MAITENA ZABALA

SARRERA

Proiektu honen egileak, Jon, Leire, Garazi eta Maitena gara.

Leireren aitona baserri eder baten bizi zen Lekeitioko Santa Katalinako pasealekuan; aurreko urtean nagusien erresidentzi batera eramán zuten bakarrik ezin zelako bizi. Orduan Leirek taldekideei proiektu hau egitera bultzatu zigun; bere aitonari baserria alokatzea eta “Hostel” bat ezartzea baserrian, guk onartu egin genuen.

Gure hostelaren ezaugarriarik nagusiena prezio baxuko egonaldiak bermatzea da, Lea Artibai gure ingurua era hurbil eta zuzenean ezagutzuz guk eskeiniko dizkiegun esperentzia paregabeetan oinarriturik.

Hostelaren kontzeptuaz gain, aktibitate ezberdinak ere eskeintzea da gure helburua, gu izango gara gure bezeroen bitartekari gure eskualdeko ohitura, inguru naturala eta jaiak beraiei erakusteko. “Ekohostel” izena aukeratu dugu energi iturri naturalak dituelako, eta baita hortua elikagai freskoak eskuratzeko. Eta ez-gaituentzako guztiz egokituta egongo da; urritasun fisikoa dutenentzako, itsuentzako eta gorrentzako.

Gure negozioa arrakastatsua izango dela uste dugu . Bi aktibitate hauen baturak sektore berdineko enpresetatik ezberdinduko gaitu, gure eskualdean horrelako negozioerik ez bait dago eta Lekeition turismoa izugarri igo delako azken urteetan.